# GORABIDE

Nº 336 Zk.
2025ko APIRILA
ABRIL de 2025

ADIMEN DESGAITASUNA | DISCAPACIDAD INTELECTUAL
BIZKAIA


INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA


**Nobedadeak DSBE jasotzeko orduan**
**Novedades en el acceso a la RGI**
pg. 4 or.





**Fevaseko lantaldeak**
**Grupos de trabajo de Fevas**
pg. 5 or.





**Aldizkarian agertu nahi duzu?**
**¿Quieres salir en la revista?**
pg. 7 or.


# Aisialdiko-programekin gogobetetasuna



# Satisfacción con los programas de ocio




## Hausnarketa etikorako talde berria [6. or.]

## Nuevo grupo de reflexión ética [pg. 6]


GORABIDE

ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA
ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
Licenciado Poza 14, 2 - 48011 Bilbao | Tel. 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
facebook.com/gorabide | x.com/gorabide | instagram.com/gorabide | gorabide.bsky.social | youtube.com/gorabide
gorabide.com

Laguntzen du
Colabora
Bizkaia foru aldundia diputación foral

# Alta satisfacción de nuestras familias con los programas de ocio y tiempo libre

## Lo más valorado son las salidas de día urbanas en verano y las actividades deportivas en invierno, así como la relación con las personas voluntarias

La décima encuesta de satisfacción de las familias con nuestros programas de ocio y tiempo libre continúa mostrando una opinión positiva. La satisfacción general es de 4,37 sobre 5 y, como en el resto de encuestas –viviendas, residencias, centros de día, recursos de respiro y BBK SAIOA GORABIDE–, todas las mediciones están por encima del 4. Las actividades más valoradas son las de verano, con una media de 4,49. Por su parte, el programa de invierno ha obtenido un 4,29 global.

### Actividades más puntuadas

En el caso de las actividades de verano, las mejor calificadas por las familias son las salidas de día urbanas (4,57). Y también son muy apreciadas las estancias semanales (4,42). En invierno, lo más puntuado son las actividades deportivas (4,48), seguidas de las salidas de día en sábados y domingos (4,39), y de los clubes de fin de semana (4,32). En un siguiente nivel, igual de positivo, están los centros que funcionan las mañanas entre semana (4,19) y los clubes de las tardes entre semana (4,13).

### Voluntariado muy valorado

De los aspectos organizativos, destaca la labor de nuestro voluntariado: tanto su relación con las personas usuarias (4,53) como la atención que reciben las familias por parte de las personas voluntarias (4,48). Otras cuestiones relevantes son el impacto que tiene en la calidad de vida participar en programas de ocio y tiempo libre (4,48), la acogida (4,40), y la información que reciben las familias (4,39). También la documentación e información que les solicitan (4,35) y la convivencia de sus familiares con otras personas con discapacidad intelectual (4,35).

Así mismo, valoran la atención ofrecida por el equipo de profesionales (4,33), las actividades de ocio que se realizan (4,31), los destinos de las estancias de verano (4,29), las posibilidades que tienen las personas usuarias de participar en el entorno comunitario (4,23) y la atención que prestamos a necesidades y preferencias (4,10) en los apoyos.

### Opiniones y sugerencias

Además de sus puntuaciones, las familias nos han trasladado opiniones y sugerencias sobre los recursos de ocio que ofrecemos, y también propuestas de nuevas actividades. Con toda la información recibida, seguiremos trabajando para mejorar nuestros programas de ocio, y adaptarlos a los gustos e intereses de las personas usuarias.

En esta ocasión, la participación en esta encuesta de satisfacción ha aumentado significativamente, del 37% al 48%. Por eso, agradecemos la colaboración y animamos a seguir haciéndolo en próximos cuestionarios.



Hemos preguntado
a las familias qué opinan
de las actividades de ocio.
Lo que más les gusta
es lo que hacemos en verano.
Sobre todo, las salidas.
También les gustan mucho
los deportes y las otras salidas
que hacemos en invierno.
Además, destacan el trato
de las personas voluntarias.
Y cómo mejora la vida
de las personas usuarias
cuando hacen actividades
de ocio y tiempo libre.

GORABIDE

# Gure familien gogobetetze handia aisialdi eta astialdiko programekin

## Estimatuenak udan egunez egiten ditugun hiriko txangoak eta neguko kirol-jarduerak dira, baita boluntarioekiko harremana ere



Familiei galdetu diegu zer iruditzen zaizkien gure aisialdiko jarduerak.
Gehien gustatzen zaiena udan egiten duguna da.
Batez ere, txangoak.
Baita neguko kirolak eta irteerak ere.
Gainera, boluntarioen tratua nabarmendu dute.
Eta nola hobetzen den erabiltzaileen bizitza aisialdi eta astialdiko jarduerak egiten dituztenean.

Gure aisialdiko eta astialdiko programei dagokienez familien gogobetetze-maila ezagutzeko hamargarren inkestak iritzi ona erakusten jarraitzen du. Gogobetetze orokorra 4,37-koa da 5etik eta, gainerako inkestetan bezala –etxebizitzak, egoitzak, eguneko zentroak, atsedenerako baliabideak eta BBK SAIOA GORABIDE–, emaitza guztiak 4tik gorakoak dira. Jarduerarik balioetsienak udakoak dira, 4,49ko batezbestekoarekin. Bestalde, neguko programak 4,29 puntu jaso ditu oro har.

### Gehien puntuatutakoa

Udako ekintzen kasuan, familiek gehien puntuatutakoak hiriko eguneko irteerak dira (4,57). Asteko egonaldiak ere asko balioesten dituzte (4,42). Neguan, honako ekintza hauek jaso dute puntu gehien: kirol-jarduerak (4,48), larunbat eta igandeetako eguneko irteerak (4,39), eta asteburuko klubek egiten dituztenak (4,32). Hurrengo mailan, aurrekoa bezain positiboan, aste barruan goizez irekita dauden zentroak (4,19) eta aste barruan arratsaldez antolatzen diren klubak (4,13) daude.

### Boluntarioak

Antolaketari dagokionez, gure boluntarioen lana nabarmentzen da: bai erabiltzaileekin duten harremana (4,53) bai familiek haiengandik jasotzen duten arreta (4,48). Beste kontu garrantzitsu batzuk aisialdiko eta astialdiko programetan parte hartzeak bizi-kalitatean duen eragina (4,48), harrera (4,40) eta familiek jasotzen duten informazioa (4,39) dira. Baita eskatzen dizkieten agiriak eta informazioa ere (4,35), eta beren senideen eta desgaitasuna duten beste pertsona batzuen arteko bizikidetza (4,35).

Halaber, modu positiboan baloratzen dituzte profesionalen taldeak eskaintzen dien arreta (4,33), egiten diren aisialdiko jarduerak (4,31), udako egonaldietarako helmugak (4,29), erabiltzaileek ingurune komunitarioan parte hartzeko dituzten aukerak (4,23), eta laguntzak emateko orduan erabiltzaileen beharrei eta lehentasunei jartzen diegun arreta (4,10).

### Iritziak eta iradokizunak

Familiek, beren puntuazioez gain, aisialdirako eskaintzen ditugun baliabideei buruzko iritziak eta iradokizunak helarazi dizkigute, bestelako jardueretarako proposamenekin batera. Jasotako informazio guztia gogoan, lanean jarraituko dugu hala gure aisialdiko programak hobetzeko nola erabiltzaileen gustu eta interesetara egokitzeko.

Oraingo honetan, gogobetetze-inkestan parte hartu duten pertsonen kopurua nabarmen handitu da: %37tik %48ra. Hortaz, eskerrik asko laguntzeagatik eta espero dugu hurrengo inkestetan ere hala egitea.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Novedades en el acceso a la RGI

Desde que entró en vigor la Ley del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión (Ley 14/2022, de 22 de diciembre) y el reglamento que la desarrolla, son más las personas con discapacidad que pueden ser beneficiarias de la RGI (Renta de Garantía de Ingresos). Y Gorabide, en coordinación con otras entidades de Fevas Plena Inclusión Euskadi, trabajamos para detectar todas las situaciones excepcionales que se dan respecto a la aplicación de la nueva ley y las novedades de su reglamento.

Esta ley ha modificado y mejorado algunos aspectos que favorecen a las personas con discapacidad. Entre esas mejoras, hay una muy importante: las personas mayores de edad con discapacidad causantes de una prestación familiar por hija o hijo a cargo pueden solicitar la RGI para pensionistas.

Otras novedades mejoran el acceso de las personas con discapacidad a esa prestación económica, en cuanto a requisitos de tiempo exigido de empadronamiento (artículo 19) y también en la consideración de unidades de convivencia excepcionales (artículo 26). La ley recoge que las personas pensionistas pueden constituir una unidad económica independiente dentro del núcleo familiar. Y reconoce como pensionistas a las personas beneficiarias de estas prestaciones:

- pensiones contributivas de jubilación, incapacidad permanente, viudedad, Seguro Obligatorio de Vejez e Invalidez (SOVI).
- pensiones no contributivas de invalidez y jubilación, de orfandad en casos de incapacidad permanente absoluta o gran invalidez.
- personas mayores de edad causantes de una prestación familiar por hija o hijo a cargo.
- quien tenga reconocida alguna de las prestaciones económicas del Fondo de Bienestar Social.

# Nobedadeak DSBE jasotzeko orduan

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea (14/2022 Legea, abenduaren 22koa) eta hura garatzen duen erregelamendua indarrean sartu zirenetik, desgaitasuna duten pertsona gehiago izan daitezke DSBEren (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) onuradun. Eta Gorabiden, Fevas Plena Inclusión Euskadiko beste erakunde batzuekin koordinatuta, lege horren aplikazioari eta hura garatzeko erregelamenduko nobedadeei dagokienez gertatzen diren salbuespenezko egoera guztiak ezagutzeko lan egiten dugu.

Legeak desgaitasuna duten pertsonei mesede egiten dieten zenbait alderdi aldatu eta hobetu ditu. Hobekuntzen artean, bada bat oso garrantzitsua: desgaitasuna duten eta ardurapeko seme-alaba bakoitzeko familia-prestazio baten kausatzaile diren adin nagusiko pertsonek pentsiodunentzako DSBE eska dezakete.

Beste nobedade batzuek desgaitasuna duten pertsonek prestazio ekonomiko hori jasotzeko duten aukera hobetu dute, erroldatze-denborarekin lotutako baldintzei dagokienez (19. artikulua), baita salbuespenezko bizikidetza-unitateak zein diren ezartzeko orduan ere (26. artikulua). Legearen arabera, pentsiodunek unitate ekonomiko independentea osa dezakete familia-nukleoaren barruan. Eta honako egoera hauetako bati dagokion pentsioaren onuradunak pentsioduntzat jotzen ditu:

- kotizaziopeko erretiroa, ezintasun iraunkorra, alarguntasuna, Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Asegurua (ZBNA; gaztelaniaz, SOVI).
- kotizazio gabeko baliaezintasuna eta erretiroa, eta zurztasuna ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko kasuetan.
- ardurapeko seme-alaba bakoitzeko familia-prestazio baten kausatzaile den adin nagusiko pertsona.
- Gizarte Ongizateko Funtsaren prestazio ekonomikoren bat aitortuta duena.

BBK SAIOA GORABIDE
Tel. 94 453 90 86
administracionsaioa@gorabide.com

# Fevaseko lantaldeetan parte hartzen dugu

‘Konektore komunitarioak’ eta ‘Murrizketarik gabe’ pilotajeak, doluan laguntzeko kasu prototipiko bat eta hainbat batzorde esku hartzen dugun ekimenak dira

Sareko lana funtsezkoa da Fevas Plena Inclusión Euskadiren eta federazioa osatzen dugun erakundeon misiorako, hots, adimen desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzeko. Horretarako, hainbat batzorde eta lantaldetan parte hartzen dugu.



## Konektore komunitarioak

Adimen desgaitasuna duten pertsonen eta komunitatearen artean loturak sortzea konektore komunitarioetan oinarritutako pilotajearen helburua da, baita pertsona horien partehartze aktiboa sustatzea eta gizartesarea sendotzen laguntzea ere.

## Murrizketarik gabe

Beste pilotaje baten bidez, Plena Inclusiónen LiBre tresnarekin, egoera zailei buruzko hausnarketa etikoa sustatu, pertsona bakoitzarekiko errespetua eta haren babesa bermatu, eta ingurune inklusiboago eta seguruagoetarantz aurrera egin nahi da.

## Laguntza doluan

Dolu-prozesuetan ikuspegi etikoz laguntzeko kasu prototipoak egoera horiei egokiro aurre egitea ahalbidetzen duten orientazio-irizpideak nola garatu erabakitzeko gogoetan sakontzen du.

## Lan-batzordeak

Bestalde, etxebizitza, eguneko arreta eta autokudeaketako batzordeetan nork bere esperientziak kontatzen eta besteenak entzuten ditu, eta, horrela, ezagutza areagotzen da, erakunde parte-hartzaileon kasu praktikoak denok batera aztertuz.

# Participamos en grupos de trabajo de Fevas

Los pilotajes ‘Conectores comunitarios’ y ‘Libre de restricciones’, un caso prototípico de acompañamiento al duelo y varias comisiones son iniciativas en las que intervenimos

El trabajo en red es esencial para la misión de Fevas Plena Inclusión Euskadi y de las entidades que formamos parte de la federación, en la defensa de derechos de las personas con discapacidad intelectual. Para ello, participamos en diversas comisiones y grupos de trabajo.

## Conectores comunitarios

El pilotaje centrado en la figura de conectores comunitarios busca crear vínculos entre las personas con discapacidad intelectual y la comunidad, promover su participación activa y contribuir a fortalecer el tejido social.

## Libre de restricciones

A través de otro pilotaje, con la herramienta LiBre de Plena Inclusión, se pretende promover la reflexión ética sobre situaciones complejas, garantizar el respeto y la protección de cada persona, y avanzar hacia entornos más inclusivos y seguros.

## Acompañamiento al duelo

El caso prototipo de acompañamiento en procesos de duelo desde una perspectiva ética profundiza en la reflexión deliberativa para desarrollar criterios orientadores que permitan afrontar esas situaciones de manera adecuada.

## Comisiones de trabajo

Por su parte, las comisiones de vivienda, atención diurna y autogestión permiten compartir experiencias y ampliar conocimiento, a través de la puesta en común de casos prácticos de las entidades participantes.

# Etikaren ikuspegi berria

## Hausnarketa-talde arinagoak eta diziplina anitzekoak Etika Batzordea ordezkatu du

Gure elkartean etikarekin lotutako lehen ekintzak egiten hasi ginenetik 20 urte bete direnean, etapa berri bati ekin diogu, ikuspegi berritu eta egungo beharretara egokitutakoarekin, urte hauetan guztietan gureganatutako ezagutzari eutsita. Hala, Gorabideko Etika Batzordeak, 2007an sortu genuenak, Hausnarketa Etikorako Taldeari eman dio lekukoa.

Talde berriak ere erabakiak gure erabiltzaileentzat ahalik eta onurarik handiena lortzeko xedez hartzen direla bermatuko du, eta haien autonomia sustatzeko eta printzipio etiko irmoetan oinarritutako laguntza ziurtatzeko helburuz ere bai. Eta hori ikuspegi arinagoaz eta diziplina anitzekoaz egingo du, profesionalei erreferentzia-esparruak eta orientazio etikoa eskaintzeko asmoz, eta erabakiak adimen desgaitasuna duten pertsonen duintasuna eta ongizatea lehenetsita hartzen direla ziurtatuko du. Betiere aintzat hartuta azken emaitza ez ezik, ekintza bakoitzean konpromiso profesionala eta gizatiarra bermatuko duen erabakiak hartzeko prozesua ere.

### Etika eguneroko lanean

Gorabideko Hausnarketa Etikorako Talde berria erakundeko hainbat arlo eta lanpostutako profesionalek osatzen dute. Eta, datozen faseetan, erabiltzaileen, senideen eta boluntarioen ikuspegiak batuko zaizkio. Taldearen helburua etikari buruzko edukiak sortzea da, eguneroko lanean aplikatzeko modukoak eta hainbat formaturen bidez eskuragarriak.




Zuzeneko arreta, laguntza teknikoa, gizarte-lana, koordinazioa eta zuzendaritzaren profesionalek parte hartzen dute Hausnarketa Etikorako Taldean.

El Grupo de Reflexión Ética cuenta con profesionales de atención directa, apoyo técnico, trabajo social, coordinación y dirección.

# Nuevo enfoque de ética

## Un grupo de reflexión más ágil y multidisciplinar releva a nuestro Comité de Ética

Cuando se cumplen 20 años de las primeras acciones vinculadas a la ética en nuestra asociación, iniciamos una nueva etapa, con un enfoque renovado y adaptado a las necesidades actuales, sin perder el conocimiento acumulado. Así, el Comité de Ética de Gorabide, que pusimos en marcha en 2007, da el relevo al Grupo de Reflexión Ética.

Esta nueva figura mantiene el espíritu de garantizar que las decisiones se centren en el mayor beneficio posible para nuestras personas usuarias, promover su autonomía y asegurar un acompañamiento basado en principios éticos sólidos. Y lo hace desde una perspectiva más ágil y multidisciplinar, con un nuevo enfoque que busca proporcionar marcos de referencia y orientación ética para profesionales, y asegurar que las decisiones se tomen priorizando la dignidad y el bienestar de las personas con discapacidad intelectual. No sólo enfocándose en el resultado final, sino en un proceso de toma de decisiones que garantice el compromiso profesional y humano en cada acción.

### Ética en el trabajo diario

El nuevo Grupo de Reflexión Ética de Gorabide está compuesto por profesionales de diversas áreas y puestos de la organización. Y, en próximas fases, contará con las perspectivas de personas usuarias, familiares y voluntariado. Su objetivo es generar contenidos sobre ética, aplicables al trabajo diario, accesibles a través de diferentes formatos. Algunos temas prioritarios son la intimidad, la autonomía, el derecho a la información o el acompañamiento en la toma de decisiones.

## Zure familia maiatzeko Gorabide aldizkariaren azala izan daiteke!




## ¡Tu familia puede ser la portada de la revista Gorabide de mayo!




# LABURRAK BREVES

### Hitzarmena Bilbao Kirolakekin

Bilbao Kirolakekin izenpetutako hitzarmenari esker, gure saski-baloi-taldeak eta areto-futbolekoak San Inazioko eta Deustuko kiroldegiak erabiltzen dituzte, hurrenez hurren, asteroko entrenamenduetarako eta etxean jokatzen dituzten partidetarako.

### Convenio con Bilbao Kirolak

Gracias al convenio de colaboración con Bilbao Kirolak, nuestros equipos de baloncesto y de fútbol sala utilizan los polideportivos de San Ignacio y Deusto, respectivamente, para sus entrenamientos semanales y los partidos que juegan como locales.

### Irisgarritasun kognitiboa Deustun

Bigarren urtez, irisgarritasun kognitiboaren gaineko modulu bat irakatsi dugu Deustuko Unibertsitateko Hezkuntza Premia Bereziei buruzko Masterrean. Ekimena unibertsitate bereko Gizarte Inklusioari eta Desgaitasunari buruzko Masterrean bi ikasturtez egin genuenari gehitu zaio.

### Accesibilidad cognitiva en Deusto

Por segundo año, hemos vuelto a impartir un módulo sobre accesibilidad cognitiva en el Máster en Necesidades Educativas Especiales de la Universidad de Deusto. Esta iniciativa se suma a la que realizamos durante dos cursos en el Máster de Inclusión Social y Discapacidad de la misma universidad.

GORABIDE

ABRIL DE 2025 | Nº 336 Zk | 2025KO APIRILA

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).




**Gure gazte-taldeak haren eskuragarritasuna egiaztatzeko probatu duen sexuxantaia prebenitzeko bideojokoa kaleratu du Pantallas Amigas-ek.**

**☞ prevencionsextorsion.es**

**Pantallas Amigas ha lanzado un videojuego para prevenir el chantaje sexual, que ha sido testado por nuestro grupo de jóvenes, para probar su accesibilidad.**

**☞ prevencionsextorsion.es**

# PARTAIDETZA ASOZIATIBOA

Apirilaren 10ean, **barreterapia-tailerra** antolatuko dugu adimen desgaitasuna duten pertsonen senideentzat, 'Barre egitearen eta ondo sentitzearen artea' izenburupean. Eta hilaren 29an, '**Zure emozioekin konektatzen**. Identifikatu, balioetsi eta balioztatu sentitzen duzuna' saioa eskainiko dugu, gure ongitasun eta garapen pertsonalako Ongizate Programaren barruan. Horrez gain, senideek elkarri lagundu ahal izateko **Kafeak kide artean** tailerrekin jarraituko dugu. Hori guztia, "la Caixa" Fundazioaren laguntzarekin.

**Informazio gehiago eta izen-emateak:**
johannalopez@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10

**AUTOGESTIO PROGRAMA**

- **Gazteak:** Asteazkena 2, 17:30etan.
  La Perrera. Sabino Arana etorb. 50 (Bilbo).
- **Helduak:** Asteazkena 16, 18:00etan.
  Abandoko Udaltegian. Barrainkua 5 (Bilbo).

# PARTICIPACIÓN ASOCIATIVA

El 10 de abril, organizaremos un **taller de risoterapia** para familiares de personas con discapacidad intelectual, bajo el título 'El arte de reír y sentirse bien'. Y el 29, ofreceremos la sesión '**Conectando con tus emociones**. Identifica, valora y valida lo que sientes', dentro de nuestro Programa Ongizate de bienestar y desarrollo personal. Además, continuaremos con los grupos **Cafés en compañía** de ayuda mutua entre familiares. Todo ello, con el apoyo de Fundación "la Caixa".

**Más información e inscripciones:**
johannalopez@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10

**PROGRAMA DE AUTOGESTIÓN**

- **Jóvenes:** Miércoles 2, a las 17:30.
  La Perrera. Avda. Sabino Arana nº 50 (Bilbao).
- **Personas adultas:** Miércoles 16, a las 18:00.
  CMD Abando. c/ Barrainkua nº 5 (Bilbao).

D.L./L.G. BI-394-2014